

berriak Triforio -tik



araba
álava

MUSIKA ETA ZINEMA, KLASIKO BAT SANTA MARIAKO UDETAN

Santa Maria katedralaren ataria, berriro ere, Kontzertuan eta irekita programaren edizio berriaren agertokia izango da udan. Hainbat urte daramatzagu musika, zinema eta magia konbinatzen dituen ekimen hau egiten, arrakasta handiz egin ere, Jazzargia kultura-elkartearekin elkarlanean.

Aurten, askotariko estiloetako bost musika-hitzordu programatu dira ikus-entzuleen belarriak goxatzeko. Fadoak eta Portugaleko musika herritarra, gitarra, flamenkoa, bluesa eta folka egongo dira ekainetik irailera, **Mara, Lucas Masciano, Amós Lora, Elcano Browning Cream eta Ensemble Sangineto** musikarien eskutik. Vital Fundazioa izango da bost emanaldien laguntzaile nagusia, eta 6 eta 10 euroren artean eskuratu ahalko da sarrera.



Halaber, Laboral Kutxaren babesarekin oraingoan, 800 ahots baino gehiago bilduko dituzten bost errezital koralez gozatu ahalko da. Arabako Abesbatzen Federakundearekin elkarlanean, doakoak izango dira, eta ekaineko ostiral guztietan eta uztailako lehenengo ostiralean egingo dira, 19:45ean.

Ekimen horiez gain, zinema egongo da uztailan eta abuztuan, aire zabalean, eta magia eta antzinako musikaz gozatu ahalko da irailean, kultura-programa zabal bati esker.

Bada, www.kontzertuanetairekita.eus webean aurki daitezke informazio guztia, egitaraua eta xehetasunak.



Familiantzako bisitak

Familiantzako hurrengo bisitak maiatzaren 18an 18:00etan gaztelaniaz eta 25ean 17:30ean euskaraz izango dira. Ekainean, hilaren 1ean 17:30ean gaztelaniaz eta 8an 17:00etan euskaraz programatu dira.

Bisitetan, bisitari txikienei egokitutako hizkera erabiliko da, azalpenak uler ditzaten, eta ibilbideaz gozatu.

Luis Aranburu Musika Eskolaren errezitala

berriak
Triforio-tik



Hiriko Luis Aranburu Eskolako ikasleak berriro igoko dira Santa Mariako arkupeetako agertokira, ikus-entzuleei ikasturte amaierako kontzertuak eskaintzeko. Ohikoa denez, pianoko ikasleen txanda izango da maiatzaren 29an (asteazkena); hurrengo egunean, berriz, askotariko

diziplinatako ehun bat ikaslek hartuko dute protagonismoa, eta musika-tresna sorta handi batekin erakutsiko dituzte ikasturtean egindako aurrerapenak. Bi errezitalak hasiko dira 19:15ean, arkupeetan, eta doakoak izango dira; hala ere, Katedraleko Bisitarien Zentroan hartu beharko dira gonbidapenak aurretik.

Jakiundek Santa Maria bisitatu du

Apirilaren 11n, Jakiundeko akademiko finko izendatu zituzten Daniel Innerarity filosofoa eta Ana Maria Zubiaga genetista, zientzien, arteen eta letren euskal akademiak Arabako hiriburuan egin zuen osoko bilkuran. Aurrekoetan bezalaxe, taldeak Santa Maria katedrala bisitatu zuen, eta Jon Lasa fundazioko zuzendari kudeatzaileak egin zien harrera. Bada, tenplua zaharberritzeko lanen aurrerapen-egoera ikusi zuten.



Elkartasuna Notre Dame katedralarekin

Apirilaren 15ean, sute ikaragarria piztu zen Notre Dame katedralan, Pariseko monumentu enblematikoenetako batean, eta oso kalte handiak eragin zituen tenpluan, eta mundu osoa hunkitu. Gasteizko Santa Maria katedralak bat egiten du haiekin une gogor hauetan, Parisen eta gu guztion memoria eta nortasuna ordezkatzen jarraituko duelako uste osoarekin.